

ESKOLA JANTOKIA

- **Jantokiko arduraduna.....MERTXE MARTINEZ**
Berarekin hitz egiteko goizeko 9:00 etan etor zaitezke eskolara edo telefonora dei egin dezakezue 10:00etatik 11:00etara.

- **Monitoreak:** 18 monitore izango ditugu umeak zaintzeko eta garbiketa egiteko.
Arduradunak hauexek dira:
 - 2 urteko ikasleekin: Karmele, Yoli eta Juli.
 - 3 urtekoekin: M^aAsun eta Azucena..
 - 4 urtekoekin: María eta Edurne.
 - 5 urtekoekin: Ainara eta Oihane.
 - 1. mailakoekin : Aintzane
 - 2. mailakoekin : Astrid.
 - 3.mailakoekin :Bea.
 - 4. mailakoekin : Belén.
 - 5. mailakoekin : Eva.
 - 6. mailakoekin : Ana.
 - Office : Yoli, Olga, Susane eta Loli
 - Laguntza : Yrama

- **Bazkaltiarren kopurua :**
Haur hezkuntza.....122
Lehen hezkuntza..... 215
- 1. **Ordutegiak eta txandak**
 - a. Jantokiko ordutegia 13:00etik 15:00etara izango da.
 - b. Lehenengo txandan Haur Hezkuntzako 2, 3 eta 4 urtekoek eta Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoek bazkalduko dute. Bigarren txandan 5 urtekoek eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoek bazkalduko dute.
- 2. **Irteerak**
 - a. Iraila, ekaina, Olentzero eguna, Inauteri egunetan irteerak horrela egingo dira:
 - Bi urteko ikasleak 14:00etan irtengo dira.
 - 3, 4 eta 5 urtekoak 14:30ean
 - Lehen Hezkuntzakoak 14:45ean.Jardunaldi arrunta hasten denean L.H.-koak asteazkenetan 14:30ean etxera joango dira.
 - b. Hirugarren mailara arte monitoreek umeak familiei eman behar dizkiete. Berriz, 4. mailatik gorako umeak bakarrik joan daitezke gurasoak haien arduradunak izanik.
 - c. Maila ezberdinetan anai-arrebak dituzten ikasleek ohar baten bidez adieraziko digute gehien komeni zaien irteera ordua
 - d. Ikasleren bat, edozein mailatakoa, gaixotzen denean, gurasoak etorri behar dira bere bila derrigorrez.
 - e. Lehen Hezkuntzako ikasleak patioko atetik irtengo dira eta Haur Hezkuntzakoak ate berritik.
- 3. **Abisuak**

Umea etortzen ez bada, ordua baino lehenago irten behar badu ala beste pertsona batek batzen badu jantokiko arduradunari esan behar zaio honek ume horretaz arduratzen den monitoreak abisatzeko.

4. Medikazioa

Umeren batek menu berezia behar badu (zeliakoa, alergikoa...), medikua-
ren txostena ekarriko du zer egin behar dugun okerreko jatea gertatuz
gero bertan idatzita.

5. Bekadunak

- a. Aurreko ikasturtean beka jaso zutenei ez diegu jantokiko kuotarik pasatuko. Baina aurtengo ebazpenean dirulaguntza ukatzen zaionaren familiak **dena batera ordainduko du**. Hori ekiditzeko, komenigarria da hilabetero ordaintzea jantokiko arduradunari aldez aurretik esanez.
- b. Ordaindu badute eta geroago beka jasotzen badute, gurasoei kobratutako guztia bueltatuko zaie.

6. Diruaren itzultzea

- a. Umeren bat jantokira aste batean edo gehiagotan etortzen ez bada eta aldez aurretik jantokiko arduradunari esaten bazaio, kuotaren %50 bueltatuko da.
- b. Umeak kolonietara joaten badira, kuotaren %50 ere bueltatuko da.
- c. Bekadunei ez diegu dirurik bueltatuko.

7. Prezioa

- a. 2019-2020 ikasturtean mahakide ebentual bakoitzak 5,20€ egunean ordaindu behar dio jantokiko arduradunari eskura eta ohar batez esan behar zaio tutoreari.
- b. Ohiko bazkaltiarrek egunean 4,60 € ordainduko dute.

	Iraila	Urria- maiatza	Ekaina
4 egun	50,60€	67,85€	41,40€
5 egun	64,40€	85,67€	50,60€

8. Haur hezkuntza

- a. Ume bakoitzak 2 pakete toallita ekarri beharko ditu.
- b. Abisuren bat badago, **esan jantokiko arduradunari eta tutoreari**.

9. Arropa

Gurasoek ikaslearen izena eta maila idatzi behar dituzte jertsetan eta berokietan.
Arropak erosoak izango dira umearen autonomia errazteko bainua joateko orduan.

JANTOKIAN BAZKALTZEA BORONDATEZKOA DA, HORTAZ IKASLEEK ETA FAMILIEK ARAUAK BETE BEHAR DITUZTE DERRIGORREZ.

KOMUNIKAZIOA

1. Hiruhileko triptiko bat emango diegu familiei eguneroko menuarekin, etxeko dietarekin egokitu ahal izateko.
2. Bi eta hiru urteko ikasleei egunero emango zaie eguneroko gorabeherei eta jan dutenari buruzko informazioa.
3. Hiruhilekoa amaitzerakoan ume bakoitzari txosten bat emango zaio jantokiko ohiturak ebaluatzeko.
4. Gurasoek hitz egin dezakete monitorearekin aldez aurretik abisatuz.